



Fernando Martinez eta Mikel Aizpuru • EHUko Historia irakasleak

«Ekonomikoki Asiarantz ari da mugitzen munduko erdigunea»

II. Mundu Gerraz geroztiko historia euskarazko liburu batean bildu dute Martinezek eta Aizpuruk. Herrialde arabiarretako matxinadak eta krisia «bihurgune» izango direla uste dute.

Lierni Alkorta

Gaur egungo munduaren historia 1945-2009 liburuak kaleratu berri dute Fernando Martinez Ruedak (Bilbo, 1963) eta Mikel Aizpuru Muruak (Gabiria, Gipuzkoa, 1963), UEUren zigitupean. EHUko Historiako irakasleak izanik, ikasleei euskarazko materiala eskaintzea izan da liburuaren idaztearen arrazoi nagusietariko bat.

G Zerk bultzatuta idatzi duzue liburua?

E MIKEL AIZPURU: Bi arrazoi egon dira eskuliburuaren prestakuntzan. Kezka nagusia gure ikasleak izan dira. Eskura izan dezatela garai hori hobeto ulertzeko eta lantzeko euskaraz dagoen materiala. Bigarren kezka irakurle euskaldun orori denbora-epe interesgarri hori ezagutzeko aukera ematea izan da, sakontasunez eta mundua bere konplexutasunean erakutsita.

G 1945etik 2009rako tartea landu duzue. 2009tik zer aldaketa nabarmengertatu dela deritzozue?

E M.A.: Lehen aldaketaren hasiera 2008an jar daiteke; krisi ekonomikoa. Zenbait ustezko adituk fenomeno labur moduan aurkeztu baziguten ere, bere amaiera urru-

ti egon daiteke. Bigarren aldaketa garrantzitsua herrialde arabiarretan gertatzen ari diren matxinadak eta iraultza ahalegina da. Goizegi da bi prozesu horiek nondik nora joko duten baieztatzeko, baina ziur aski bihurtu ditugu etorkizunean.

G Nola laburbilduko zenituzkete liburuan landutako 64 urte horien gertaera giltzarriak?

E M.A.: Ez da erraza laburpen hori egitea. Bi garai egon dira: lehen Gerra Hotzak markatu duena, 1991ra arte, eta bigarrena globalizazioarena. Lehen kasua AEBen eta Sobietar Batasunaren arteko lehiak markatu zuen. Deskolonizazioa izan zen orduko beste ezaugarri garrantzitsua. Bigarrena AEBen erabateko nagusitasunarekin hasi zen, baina argi gelditu da protagonismo hori auzitan dagoela, ez baita gai izan munduko ordena bermatzeko, eta Txina, India, Brasil eta antzeko herrialdeek zeresan handia izango dute etorkizunean.

G I. eta II. Mundu Gerrek aztarna utzi dute. Zer ondorio nagusi izan zituzten?

E M.A.: Garrantzitsuenak hiru izan dira: AEBen nagusitasuna eta Sobietar Batasunarekin izan-

dako lehia, deskolonizazio prozesuen areagotzea eta Europaren garrantzi galtzearen hasiera.

G Europa «garrantzia galtzen» hasi zela diozue. Ordutik zer-nolako bilakaera izan du Europak?

E M.A.: II. Mundu Gerrak, kalte handiak sortu arren, ondorio baikorra utzi zuen: europar gehienek uko egin zioten indarkeria erabiltzeari bertako estatuen arteko harremanak arautzeko. Europak gerrari bizkarra eman ahal izateko, AEBen babesa ahalzatu gabe, bi neurri garrantzitsu hartu ziren. Barne politikan, sozialisten eta kristau-demokraten arteko ituna egin zen, gizarte desoreka handienak ezabatzeko. Kanpo politikan, Europako batasun ekonomikoa bultzatu zen, estatuen arteko lehia arintzeko. Horren ondorio da Europako Batasuna.

G Gaur egun, krisian dago Europa, bai ekonomikoki bai egiturari dagokionez. Zertan egin da huts?

E M.A.: Aipaturiko eredu horrek onura asko ekarri zizkien europarrei, baina krisi garaiak heltzen direnean gabeziak agertzen dira, orain ikusten ari garen moduan. Batasun politikoak ahulezia asko ditu, eta estatu bakoitzak berea defendatzeko joera du. Bestalde,

Europa, osotasunean hartuta, munduko ekonomia garatuena zen garaian sortu zen. Egun, beste lurralde batzuek hazkunde handia dute, eta Europako estatu asko bere tokia bilatzen ari dira egoera berri horretan.

G Aldiz, XX.a «mende amerikarra» izan zela idatzi duzue. Zergatik?

E FERNANDO MARTINEZ: Arrazoi bakar batean laburbil daiteke: XX. mendean AEBen munduko potentziarik indartsuena izan da. Ikuspuntu ekonomikotik, XX. mendearen hasieratik Estatu Batuak munduko industria-ekonomiarik aberatsena zen. II. Mundu Gerraren ostean mundu osoko lidergo politikoa bere gain hartzea erabaki zuten. XX. mende bukaeran, Sobietar Batasuna desegin zenean, AEBak munduko superpotentzia bakar bihurtu ziren. Bere nagusigoa arlo ekonomikoa eta militarrean ez ezik, esparru kultural eta teknologikoan ere nabarmena izan da.

G AEBen «kontraesanak eta paradoxak» ere hizpide dituzue, ordea.

E F.M.: Esaterako, arlo ekonomikoan munduko potentzia ekonomikoa nagusian pobrezia tasa altuak daude. Arlo politikoan 1960ko hamarraldira arte populazio beltzaren botoa emateko eskubidea ez zegoen bermaturik. Edo, AEBek teoriarik totalitarismo komunistaren kontra borrokatze aldera diktadura ugariri eman zien laguntza eta babesa Gerra Hotzaren garaian.

G XXI. mendea, «Txinaren mendea» izango dela esateko adina arrazoirik ba al dago?

E F.M.: Azken hamarkadotako hazkunde ekonomikoko tasei eusten badie, Txina munduko lehen potentzia ekonomikoa izango da XXI. mendearen lehen erdian. Hala ere, beste arlo batzuetan, adibidez, mundu osoko eragin kulturean, gaitasun teknologikoan edo militarrean, oraindik oso alde handia dago AEBen eta Txinaren artean. Oraindik zalantza handiak daude superpotentzia berri honen etorkizunaz.

G Hirugarren mundua kontzeptu «zaharkitua» dela diozue. Zergatik? Zein kontzeptu da egokiena?

E F.M.: *Hirugarren mundua* kontzeptua deskolonizazioaren garaian sortu zen, eta kutsu geopolitikoa zuen. Gerra Hotzaren garaian hirugarren alternatiba bat zegoela adierazi nahi zuten independentzia lortu berri zuten herrialdeek. Baina 1980ko hamarkadatik aurrera herrialde horien arteko elkartasuna ahulduz joan da, eta nazioartean ez dute talde moduan funtzionatzen. Gainera, Gerra Hotza amaituta, sailkapen hirukoitz hori —mundu kapitalista, komunista eta hirugarren mundua— zaharkituta gelditu da. Horregatik, *Hegoa* edo *Hegoaldeko herrialdeak* kontzeptua erabiltzen dugu munduko desoreka ekonomikoak adierazteko.

G Hirugarren mundua zerk bihurtu du Hirugarren mundu?

E F.M.: Oso errealitate desberdinak aurkitzen ditugu, baina denek bi ezaugarri dituzte: iragan koloniala eta azpigarapena.

G Latinoamerika, Afrika... eremu ezegonkorak dira. Zerk eraginda?

E F.M.: Afrikari dagokionez, XIX. mende bukaeran kolonialismoak ezarritako egitura politiko eta ekonomikoetan dago ezegonkortasun horren jatorria. Latinoamerikari dagokionez, desberdintasun sozial handiko eta kohesio gutxiko gizarteak izan dira.

G Globalizazioak «nazioarteko (des)ordena berria» ekarri duela diozue. Zein bilakaera izango du (des)ordenahorrek?

E F.M.: Lehenik historialariok ez garaia igarri onak aitortu behar dugu. Hala ere, XXI. mendeko joera batzuk aipa daitezke. Ikuspuntu ekonomikotik, munduko erdigunea Asiarantz mugitzen ari da. Ikuspegi politikotik, nazioarteko harremanak aldatuko dira bi arrazoiengatik. Batetik, potentzien arteko oreka berria eratzten ari da, eta superpotentzia bakar batek ezingo du bere nagusigoa ezarri. Bestetik, globalizazioak estatuaren boterea ahuldu du. Baina egun ez dugu gobernantza globaleko erakunde eraginkorrik. XXI. mendean nazioarteko erakunde horiek sortzeko gauza izango gara? Historialari batek ezin du hori erantzun.